



Urriaren 8an Kresala zineklubaren film ziklo berria hasiko da. Abendura bitartean, hamar pelikula eskainiko dira Arrasate kaleko Kutxaren kultur aretoan. Emanaldiak arratsaldeko 19.30etan hasiko dira. Hona hemen film zerrenda.

Datozenak

Eguna	Zuzendaria	Filma
Urriak 8	Liv Ultrmann	"Encuentros privados"
Urriak 15	Juan Manuel Coteró	"El sudor de los ruiseñores"
Urriak 22	Radu Mhaileanu	"El tren de la vida"
Urriak 29	John Turturro	"Iluminata"
Azaroak 12	Patrice Chereau	"Los que me aman cogeran el tren"
Azaroak 19	Marc Levin	"Slam"
Abenduak 3	Mitchel Leisen	"Media noche"
Abenduak 10	Fritz Lang	"El vampiro de Dusseldorf"
Abenduak 17	Charles Chaplin	"Candilejas"
Abenduak 26	Robert Altman	"Kansas City"


Flamenco emanaldia Kandelan

Hilaren 28an, ostirala, El Bicho taldeak kontzertua eskainiko du Kandela kafetegian (Erregezainen kalea, 20). Madrildar boskote hau duela gutxi aritu zen Donostian eta harrera ona izan zuenez, gura berriro etortzea erabaki du. Talde honen emanaldien ardatza flamenkoa den arren, musika mota hau rumbarekin, tangoarekin eta buleriek uztartzen dute El Bicho-ko kideek. Emanaldia 23.00etan hasiko da.



Michel Gaztanbide Larrotxenen

Joan den udaberrian Txepe Lara eta Koldo Zuazua zinegileak, eta Bideo Mostra izan genituen Larrotxenen. Urriaren zineak zeresana ematen jarraituko du Intxaurrendoko kultur etxean. Izan ere, urriaren 4an, osteguna, Michel Gaztanbide "Berriketari" egitasmoaren protagonista izango da. Gidoigile eta zuzendariaren film laburrak proiektatuko dira eta ondoren, solasaldia egingo da. Emanaldia iluntzeko 20.15etan hasiko da.



Euskadiko Orkestraren denboraldia abian

Urriaren 4an, osteguna, Euskadiko Orkestra sinfonikoak 2001-2002 denboraldiko emanaldiei helduko die Kursaal entzutokian. Gilbert Vargak zuzenduko du orkestra eta emanaldi honetan Dezső Ranki pianojole ariko da. Ranki Hungariako pianojole onenetakoa dugu. Orkestrak E. Elgar, Mozart, Kodaly eta Ramon Lazkanoren obrak joko ditu. Emanaldia 20.00etan hasiko da.



Euroari buruzko hitzaldiak

Datozen egunotan txanpon berriari buruzko informazioa zabalduko da Egiako, Amara Berriko, Altzako, Intxaurrendoko Berriko eta Groseko kultur etxeetan. Euskarazko hitzaldiak urriaren 3an eta 15ean egingo dira Altzako Kasaresen, urriaren 4an Amara Berrin eta 16an Groseko Okendon.

